

EGA azterketa eztabaidagai

AURKEZTUTAKO LAURDENAK baino ez duela gainditzen-eta, PSE-EEk berrazterketa proposatu du. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Patxi Baztarrikak, azterketa sakona egiteko konpromisoa hartu du.

PSE-EEren aburuz, aztertu beharra dago EGA mailako azterketa, gaur egun Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa kontuan hartuta C1 maila dena. 2014. urtean, aurkeztu zirenen %26k gainditu zuen azterketa. Baztarrikaren ustez, ez da ahaztu behar goi mailako profesionalentzako ziurtagiria dela eta horrek maila jasoa eskatzen duela. Alabaina, azterketa gainditzen duen kopuruak kezkatzen du, eta lanketa sakona egingo dute.

Euskadi Irratian, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohiak adierazi zuenez, azterketara aurkezten diren ikasleen

profila ezagutu beharko litzateke eta datu hori esku artean izanda ondorioak atera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aipatu ditu adibide gisa. Andres Urrutia Euskaltzaindiko buruak irratia berean adierazpenak egin zituen eta haren ustez gakoa ez da gainditzen dutenen kopuruaz aritzea baizik eta ea EGA azterketak kalean eta lantokian euskara erabiltzeko gaitasuna bermatzen duen.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adierazi duenez, A1 eta A2 mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markora egokitu dira. Hau da, bi mailetan ziurtagiriak eskuratu ahal izango dira eta azterketak euskaltegietan egingo dira. Ziurtagiriok ez dute baliorik administrazioko hizkuntza eskakizun modura, maila apalak baitira. Administrazioan aritzeko, gutxienez, B1 eskatzen da.

Euskara Zerbitzua Biarritzen



MINTZALASAI

Guraso eta haurrak iraileko "Mintzalasai" egunetan euskaraz gozatzen.

BIARRITZEKO Herriko Etxeak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmena sinatu dute, Herriko Etxean Euskara Zerbitzua sortzeko. Herri kontseiluak aho batez onartu zuen ekimena. 2015ean bi langile kontratatuko dituzte eta 2016an beste bat. Hainbat eremu landuko dituzte: hizkuntza politika, hedabideak, paisaia linguistikoa eta herriko etxeko langileentzat euskara eskolak.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Aberatsentzako zerga pribilegioak ezabatu behar dira

POBREAK GERO ETA POBREAGO diren bitartean, aberatsak orduan eta aberatsago ari dira bihurtzen. Lana egin eta nomina duenak PFEZaren bidez ezinbestean ordaindu behar du zerga, ezin du ihes egin. Aurrezki txikiren bat duenak %15-20 ordaintzen du zergetan. Aberatsek aldiz, euren PFEZa sortzeko finantza-ingeniaritza oso bat edukitzeaz gain, eskura dituzte oraindik legalak diren sozietateak, eta horien bidez etekinak jasotzen segi dezakete zerga oso txikiekin: %1 baino ez dute ordaindu behar. Kapital aldakorrek inbertsio-sozietatez edo SICAV delakoez ari gara. SICAV bat sortzeko beharrezkoa da gutxienez 2,4 milioi euro eta 100 akziodun edukitzea. Datu ofizialen arabera, Espainiako Estatuan 2008tik 50.000 pertsona gehiago daude milioi bat eurotik gorako ondarea dutenak; azken urtean 17.000 pertsona gehitu zaizkio milioi dunen zerrendari. Mundu horixe da SICAVen atzean ezkutatu eta sozietate horietatik etekinak lortzen dituenak.

Krisia egon arren, SICAV kopuruak gora egin du eta errekorrak gainditu ditu. 2011n halako 3.000

sozietate inguru zeuden eta 24.000 milioi euro kudeatzen zituzten. Aurtengo maiatzean, 3.300 kontatu daitezke eta 36.000 milioi euro dira haiekin kudeatutakoak. Zerga erregimen pribilegiatu hori aberatsen mesederako pentsaturik dago, ez dezaten gehiago ordaindu behar, areago, gutxieneko sinboliko bat baino ez dezaten ordaindu.

Justizia eta zerga-berdintasunaren izenean, sozietate horiek ezabatu egin behar dira, iruzurra baitira. Orain arte, alderdi politikoez –PSOE agintzen zuenean barne– ez dute ezer egin horiek ezabatzeko, alderantziz, sustatu egin dituzte. Eta aberatsek patrikak diruz bete dituzte. Ondo legoke indarrean datozen eta Moncloara iristeko aukera izan dezaketen alderdi berriek euren hauteskunde-agendan apuntatzea gai hori. Jende guztiak ordaindu dezala bere irabazien arabera: gehiago irabazten duenak gehiago ordain dezala. Aski da hainbeste zerga-pribilegio eta bidezidor!

Juan Mari Arregi